

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, EFA 156/04 SAREBIDE PROIEKTUAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO ADMINISTRATIBORAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen helburua da **EUSKAL EDITOREA SLU** erakunde taldeburuari eta gainerako erakunde bazkideei “**SAREBIDE**” **proiektua** (aurrerantzean, “proiektua”) garatzen laguntzeko eta haren koordinazio eta kudeaketa administratiboa egiteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzeke baldintzak definitzea. Proiektuak EFA 156/04 identifikazio-zenbakia du eta INTERREG POCTEFA 2021-2027 Lurralde Lankidetzako Programaren bidez finantzatu zen, **Mendebaldeko Eremu Funtzionala** deialdian (AFOMEF). Proiektuak Eskualde Garapeneko Europako Funttsaren (EGEF) baterako finantzaketa du.

SAREBIDEk AFOMEF estrategiaren 3. erronkari erantzuten dio: “Hizkuntza-oztopoa gainditzea”. Haren helburu orokorra da “euskarazko hedabideen eraldaketa digitala sustatzea, eta baliabide eta soluzio teknologiko komunak txertatzea, adimen artifiziala barne, sareko edukietara sartzeko eta edukiak zabaltzeko kanalak eta formatuak areagotzeko, hala publiko berriengana iristeko”. Proiektuaren helburua “euskarazko hedabideen mugaz gaindiko lankidetzatza teknologikoko sare” bat ezartzea da.

Proiektua erakunde onuradunen partzuergo batek sustatzen du (aurrerantzean, “partzuergoa”), eta honako taula honetan zehazten da:

Zenbakia	ERAKUNDEAREN IZENA	AKRONIMOA	Herrialdea/NUTT II
1 (taldeburua)	EUSKAL EDITOREA SLU	BERRIA	Espainia/ES21
2	EUSKAL IRRATIAK	EUSKAL IRRATIAK	Frantzia/FRI1
3	ALDUDARRAK BIDEO	KANALDUDE	Frantzia/FRI1
4	BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Bilbo	Espainia/ES21
5	NAFAR IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Iruñea	Espainia/ES21
6	DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK SA	HAMAICA Donostia	Espainia/ES21
7	ELHUYAR FUNDAZIOA	ELHUYAR	Espainia/ES21
8	EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	EUSKALERRIA IRRATIA	Espainia/ES21

Proiektuak, onartutako hautagaitzaren inprimakian, C5.1 – 1. ekintza-Proiektua kudeatzea apartatuan (1.1 jarduera: PROIEKTUAREN KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA, KOORDINAZIOA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA, JARRAIPENA, PROIEKTUAREN EBALUAZIOA ETA GORABEHEREN KUDEAKETA), honako hau jasotzen du: “*Taldeburua izango da jardueraren buru, eta bazkide guztiek parte hartuko dute. Kanpoko laguntza teknikoa kontratatuko dute proiektua koordinatzeko eta kudeatzeko (gastu komun partekatua).*”

Bazkideek sinatutako “gastu komunen akordioan” honako hau ezartzen da “gastu komun” gisa, beste batzuen artean:

- *AT1 1. ekintzarako laguntza teknikoa - Kudeaketa eta koordinazioa (1. jarduera: koordinazio- eta kudeaketa-sistema definitzea; 2. jarduera: partzuergoaren koordinazio eta jarraipen teknikoa. 3. jarduera: finantza-koordinazioa eta -jarraipena).*

Halaber, honako hau ezartzen da:

- *Bazkide guztiek 1. erakunde bazkideari, EUSKAL EDITOREA SLUri, eskatzen diote, botere esleitzailerik den aldetik, 1. ekintzarako (Proiektua kudeatzea) laguntza teknikoa kontratatzeako organoaren funtzioa bete dezala.*

Preskripzio teknikoen agirian jasotzen dira proiektuaren kudeaketa eta koordinazio administratiborako kanpoko aholkularitza-zerbitzuaren jarduketan xehetasuna eta gehieneko zenbatekoa, bai eta beste xehetasun batzuk ere, hala nola kontratazio honetara eramaten diren fakturazio-baldintzak.

Eskaintzak aurkezteak berekin dakar aurkezleak agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausula guztiak onartzea.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea EUSKAL EDITOREA SLU da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea). Kontratazio-organoa erakunde kontratatzailearen GERENTEA da.

3. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kalitate/prezio erlazio onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzailerari esleituko zaio kontratua, agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu-izaera izango dute, esleipena egin ondoren formalizatzen den kontratuak ez ezik, honako dokumentu hauek ere:

- Administrazio-klausula partikularren agiri honek.
- Preskripzio teknikoen agiriak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Dokumentu horiek esleipendunak sinatu beharko ditu, kontratua formalizatzeko ekitaldian, haiekin ados dagoela adierazteko.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratua sinatzen denean hasiko da, eta haren justifikazio teknikoarekin amaituko da (2028ko bigarren seihilekoan zehar).

6. KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarritzko eta gehieneko aurrekontua **120.000 eurokoa da (BEZik gabe)**.

Lizitatzailerak beren proposamen ekonomikoan jasoko dute, Administrazio-klausula partikularren agiriari VI. eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera, kontratua gauzatzeagatik eskainitako prezioa (BEZik gabe), zeinak ezingo baitu, inola ere, lehenengo paragrafoan adierazitako lizitazioaren gehieneko aurrekontua gainditu.

Lizitazio honen xede den zerbitzuaren kostua partzuergoaren gastu komuntzat hartzen da, eta, beraz, bazkideen artean banatuko da, taula honetan ezarritakoaren arabera (aurreikusitako gehieneko prezioaren arabera konfiguratu da):

ERAKUNDE ONURADUNA	ZERBITZUAREN ZENBATEKOA ERAKUNDE ONURADUN BAKOITZEKO, € (BEZik gabe)	ERAKUNDEAK FAKTURATU BEHARREKO ZERBITZUAREN %
EUSKAL EDITOREA SLU	29.675,08 €	% 24,73
EUSKAL IRRATIAK	27.637,45 €	% 23,03
ALDUDARRAK BIDEO	19.597,79 €	% 16,33
BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK SA	0 €	% 0
NAFAR IKUSENTZUNEZKOAK SA	19.122,93 €	% 15,94
DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK SA	0 €	% 0
ELHUYAR FUNDAZIOA	16.365,42 €	% 13,64
EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA	7.601,33 €	% 6,33

GUZTIRA	120.000 €	% 100
----------------	------------------	--------------

Kontratuaren prezio horretan sartuko dira kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, besteak beste, azalpen gisa eta izaera ez mugatzailearekin, honako hauek:

- kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian aurreikusitakoaren arabera, eta ez da onartuko ondoren fakturatzea aldez aurretik azken prezioan aurreikusita egon behar zuten kontzeptuak.
- Kontratua gauzatzeari lotutako edozein kontzeptu eta kontratua gauzatzeko enplegatutako langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko orduetan eta jaiegunetan egindako lanak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.), baita zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio- eta desplazamendu-gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.
- Kontratatistak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.
- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen laneko edo informazioa jasotzeko bilera guztietara joatea, kontratua behar bezala garatu eta bete ahal izateko.

7. PREZIOA ORDAINTZEA

Aurreko 6. puntuan zerbitzuaren kostua proiektuko bazkideen artean banatu beharreko gastu komuntzat hartzeari buruz adierazitakoekin bat etorritik, erakunde kontratatistak proiektuaren onuradun bakoitzari dagozkion fakturak egingo dizkio, aurreko taulan adierazitako ehunekoari dagokion zenbatekoa kontratuaren esleipen-prezioari aplikatuta.

Partzuergoko erakunde onuradun bakoitzari egokituko zaio enpresa esleipendunarekin sinatutako kontratuaren prezioa ordaintzea, kostuaren arabera. Erakunde onuradun bakoitza izango da ordainketaren erantzulea, eta gastu hori eta ordainketaren justifikazioa dagokion gastuen aitortapenean sartu ahal izango ditu, lehen mailako kontrolatzaileak egiazta dezan.

Prezioa enpresa esleipendunari ordaintzeko honako xehakapen hau hartuko da aintzat:

- 2025eko azaroa: Kontratuaren zenbatekoaren % 25.
- 2026ko azaroa: Kontratuaren zenbatekoaren % 25.
- 2027ko azaroa: Kontratuaren zenbatekoaren % 25.
- 2028ko apirila: Kontratuaren zenbatekoaren % 25.

Enpresa esleipendunak epe bakoitzari dagozkion fakturak egin beharko dizkie

proiektuko bazkide guztiei, aurrez adierazitako baldintzetan (ordaindu beharreko zenbateko bakoitzari dagokion %a aplikatuz), hilabetea amaitu eta 10 egun naturaleko epean. Fakturaren zenbatekoa hura bidali zaien erakunde bakoitzak ordaindu beharko du, fakturaren datatik 60 egun naturaleko epean, betiere faktura adierazitako epean jaulki bada eta erakunde kontratatzailearen eta hura jaso duen bazkide bakoitzaren oniritzia badu.

Ez da ordainduko agiri honetan aurreikusitako kontratuaren xedetik kanpo egindako lan edo zerbitzurik, ez eta erakunde kontratatzaileak aldeztu aurretik eskatu ez duenik ere.

8. PREZIOA BERRIKUSTEA

Ez dagokio prezioa berrikustea.

9. PUBLIZITATEA

Honako hauek argitaratuko dira erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean:

- a) Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- b) Kontratua formalizatu dela dioen iragarkia.

Erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilerak webgune honen bidez sartuko da: <https://www.berria.eus/kontratazioak>

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoak.

Lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahalko dira soilik kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jardura-eremuaren barruan daudenean.

Erakunde kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute xede horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haien alde esleitu arte.

10.1. Kaudimena:

Erakunde lizitatzailleek honako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala dutela egiaztatu beharko dute:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

Kontratuaren eremuko urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiru urteetako ekitaldirik onenari dagokiona (urteko kontuak onartzeko betebeharra iraungita dutenak), eratze-dataren edo lizitatzailleak jarduerak hasi zitueneko eta eskaintzak aurkeztu zitueneko dataren arabera, gutxienez, **120.000** eurokoa izango da.

Gaitasun teknikoa edo profesionala.

Azken hiru urteetan gutxienez kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak eta garrantzia dituen lan bat egin izana, eta lan horren urteko zenbateko metatua, exekuzio handieneko urtean, kontratuaren batez besteko urtekoaren ehuneko 70 edo handiagoa izatea.

10.2. Giza baliabideak eta/edo baliabide materialak:

Horrez gain, enpresa lizitatzailleek gutxienez honako giza baliabide hauek atxiki beharko dizkiote kontratua gauzatzeari:

- Gutxienez 3 pertsonak osatutako talde tekniko bat, ezaugarri hauekin:
 - Proiektuaren arduradun bat, gutxienez 5 urteko esperientzia duena kontratuaren xedearen antzeko proiektu eta lanetarako laguntza teknikoan, hau da, taldeburuari eta gainerako erakunde elkartuei INTERREG programen bidez finantzatutako proiektuen garapenean laguntzeko kudeaketa administratibo eta finantzarioan laguntzeko kanpoko zerbitzuan.
 - Taldeko gainerako kideak, hau da, 2 pertsona, gutxienez 2 urteko esperientzia dutenak laguntza teknikoan eta kontratuaren xedearen antzeko lanetan.

POCTEFA programako hizkuntza ofizialak gaztelania eta frantsesa dira. Proiektuko taldeak bi hizkuntzak ezagutzen dituela ziurtatu beharko du (pertsona berak edo desberdinek izan ditzakete ezagutza horiek). Taldeko bi pertsonak, gutxienez, proiektuaren lan-hizkuntza gisa erabiliko den euskararen ezagutza egiaztatu beharko dute.

Hizkuntzen ezagutza egiaztatzeko, ziurtagiri ofizialak aurkeztu beharko dira (C1 titulua edo baliokidea), edo curriculum vitaean adierazi beharko da jatorrizko hizkuntza edo ama-hizkuntza dela, edo goi-mailako titulazio bat egin duela hizkuntza horretan.

Lanbide- eta hizkuntza-kualifikazioaz gain, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailleak gutxienez atxikitako pertsona horien esperientzia zerrendatu eta egiaztatu beharko du, dagozkien curriculum vitaeak aurkeztuta.

Erakunde lizitatzailleak proiektu osoan zehar eutsi beharko die giza baliabide horiei edo, hala badagokio, antzeko esperientzia eta hizkuntza-ezagutzak dituzten pertsonak ordezkatu ahal izango dituzte.

Eskatutako gaitasuna eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzailleak beste erakunde batzuen gaitasunean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badute kontratuaren indarraldi osoan gaitasun eta/edo baliabide horiek benetan izango dituztela, eta dagokion erakundeak ez duela kontratatzeko debekurik.

Beste erakunde batzuen gaitasunean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzailleak hori adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean.

Gainera, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzailleak beste erakunde batzuen gaitasunean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, behar diren baliabideak izango dituela frogatu beharko du, horretarako erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuz (II. eranskinean jasotako ereduaren arabera egina).

Klausula honetan aipatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrek bere horretan jarraitu beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta kontratua burutzeko unera arte iraun beharko dute.

11. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

11.1. PLEGUAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Pleguak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan EUSKAL EDITOREA, SLUren kontratatzailearen profilean.

11.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK ETA EPEA

Eskaintzak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, EUSKAL EDITOREA, SLU erakundearen kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik hasita. Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaintzak ez dira onartuko.

Eskaintzak aurkezteko, mezu elektroniko bat bidaliko da gerentea@berria.eus helbidera.

Mezuaren gaian honako hau adierazi beharko da: "SAREBIDEren kudeaketa eta koordinaziorako LTko eskaintza "Eskaintza aurkezten duen erakundearen izena".

11.3. GUTUN-AZALEN EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Proposamenak hiru gutun-azal edo fitxategi elektronikotan aurkeztuko dira:

- 1. gutun-azala
- 2. gutun-azala
- 3. gutun-azala

Gutun-azal edo fitxategi elektronikoko bakoitzak ondoren adierazten diren dokumentuak izango ditu, eta bertan jasotako dokumentuen zerrenda zenbakitua bilduko du.

1. gutun-azala. "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzailleek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honi **I. eranskin** gisa erantsi zaion formularioarekin bat datorrena.
2. Hirugarrenen baliabideak erabiltzeari buruzko adierazpena (**II. eranskina**)
3. Negozio-zifrari buruzko adierazpena (**III. eranskina**)
4. Azken hiru urteetan egindako lanen adierazpena (**IV. eranskina**)
5. Langileak atxikitze konpromisoa, agiri honi **V. eranskin** gisa erantsitako ereduaren arabera.
6. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek elkarte osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, bai eta bakoitzaren partaidetza ere, eta, esleipendun izanez gero, aldi baterako elkarte formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere bai. Aldi baterako elkarte batekin parte hartu nahi duten enpresaburuek betebeharrak solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek behar besteko ahalordeak izango ditu kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, harik eta kontratua iraungi arte. Nolanahi ere, zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte. **VII. eranskina**

2. gutun-azala. "BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzailleek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- **Memoria teknikoa**, kontratu-prestazioei buruzkoa eta, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dituenak:
 - A1. Lanen metodologia eta antolamendua:
 - Lan-metodologiaren deskribapena.
 - Garatu beharreko lanen egitura.
 - A2. Zerbitzuen edukia:
 - Zerbitzuen deskribapen zehatza.
 - Sortzen diren entregagaiak.

Lizitatzailleak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal horretan sartu beharreko dokumentazioa prestatzerakoan, eta edukiari buruz emandako jarraibideei egokitu beharko zaie. Era berean, ezingo da egin formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaren alderdiak edo haiei buruzko zantzuak ezagutzera ematen dituen erreferentziarik.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi egingo dira eta prozeduratik kanpo utziko dira.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du, halaber, egokitzen jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko eskubidea, lizitatzailleak emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

3. gutun-azala. "FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzailleak formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, agiri honi **VI. eranskin** gisa eranstean zaion ereduaren arabera.

Erakunde kontratatzaileak 1., 2. eta 3. gutun-azalean jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiaztatzen ahal izango du, bai esleipena egin aurretik, bai egin ondoren, eta kontratua martxan den bitartean, eta enpresak aurkeztutako datuen eta inguruabarren faltsutasuna kontratua deuseztatzeko arrazoitzat jo ahalko da, kontratistari egotz dakiokkeen ez-betetzeagatik.

12. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

12.1. Balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideak: gehienez 45 puntu.

12.1.1. Proposamenaren kalitate teknikoa. Gehienez 45 puntu

Aurkeztutako proposamena baloratzeko txosten batean oinarrituta, elementu bakoitzaren azterketa sakona egingo da, ebaluatzeko eta kalifikazio hauetako bat esleitzeko:

- Oso ona - Bikaina (OOB): Proposamen osoa, zehatza eta ekintza-neurri egoki, zehatz, bideragarri eta, hala badagokio, berritzaileak dituen.
- Ona-Onargarria (OON): Proposamen egokia, baina ekintza-neurri zehatz eta/edo berritzailearik gabea.
- Hala moduzkoa-Nahikoa (HMN): Proposamen ez oso zehatza, azalekoa edo teorikoa, ekintza zehatzen ekarpenik egiten ez duena.
- Ez nahikoa (EN): Proposamen osatu gabea, informazio falta duena, kontraesankorra dena edo ez datorrena bat zerbitzuaren beharrekin.

Hala, ebaluazioaren eta kalifikazioaren arabera, atal bakoitzaren puntuazioa honela definituko da:

A. Lan-metodologiaren deskribapena: Gehienez 14 puntu

- Oso ona - Bikaina (OOB): Gehienez 14 puntu.
- Ona-Onargarria (OON): Gehienez 10 puntu.
- Hala moduzkoa-Nahikoa (HMN): Gehienez 6 puntu.
- Ez nahikoa (EN): Gehienez 2 puntu.

B. Egin beharreko lanen egitura: Gehienez 14 puntu

- Oso ona - Bikaina (OOB): Gehienez 14 puntu.
- Ona-Onargarria (OON): Gehienez 10 puntu.
- Hala moduzkoa-Nahikoa (HMN): Gehienez 6 puntu.
- Ez nahikoa (EN): Gehienez 2 puntu.

C. Zerbitzuen deskribapen zehatza: Gehienez 12 puntu

- Oso ona - Bikaina (OOB): Gehienez 12 puntu.
- Ona-Onargarria (OON): Gehienez 9 puntu.
- Hala moduzkoa-Nahikoa (HMN): Gehienez 5 puntu.
- Ez nahikoa (EN): Gehienez 2 puntu.

D. Sortzen diren entregagaiak: Gehienez 5 puntu

- Oso ona - Bikaina (OOB): Gehienez 5 puntu.
- Ona-Onargarria (OON): Gehienez 3 puntu.
- Hala moduzkoa-Nahikoa (HMN): Gehienez 2 puntu.
- Ez nahikoa (EN): Gehienez puntu 1.

22 puntutik beherako eskaintzek kalitate tekniko desagokia dutela joko da, eta lizitazioetik kanpo utziko dira.

12.2. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideak: gehienez 55 puntu.

12.2.1. Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoa gauzatzeko eskaintako prezioa: Gehienez 20 puntu

Proposamen ekonomikoa formula honen arabera baloratuko da:

$$P = I1 \times 20/I2, \text{ non:}$$

P: Baloratzen den eskaintzaren lizitatzailleak lortutako puntuazioa.

I1: Proposamen merkeenaren zenbatekoa

I2: Baloratzen den eskaintzaren zenbatekoa

Ez da onartuko lizitazio-aurrekontua gainditzen duen eskaintzarik. Horretaz gain, ez dira aintzat hartuko lizitazio-aurrekontuarekiko 20 unitate portzentual baino gutxiagoko prezioa duten eskaintzak.

12.2.2. Atxikitako langileak: Gehienez 25 puntu

- **Kontratua gauzatzeari atxikitako gutxieneko langileen esperientzia: 25 puntu gehienez.**

Proposatutako lantaldeko pertsonen esperientzia baloratuko da, gehienez 25 punturekin, honela:

- Lantaldearen arduraduna:

- Puntu 1 proiektuaren arduradunaren esperientzia-urte gehigarri bakoitzeko, plegu honen 10. puntuan eskatzen den gutxienekoari dagokionez.

Gehienez 15 puntu.

- Gainerako taldekideak:

- Puntu 1 gutxieneko lantaldea osatzen duten 2 pertsonetako bakoitzaren esperientzia-urte gehigarri bakoitzeko, gehienez 7 puntura arte (lantalde osoaren artean, proiektuaren arduraduna izan ezik).

- Kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonen kopurua, agiri honen 10. puntuan eskatutako gutxienekoaz gain: gehienez 3 puntu.

Plegu honen 10. puntuaren arabera eskatzen den gutxieneko pertsona-kopuruaz gain atxikitakoei dagokionez, 2 puntu gehiago emango dira pertsona bat gehiago izateagatik, eta 3 puntu 5 pertsonako edo gehiagoko lantalde bat osatzen bada, betiere talde gehigarriko gainerako pertsonak agiri honen 10. puntuan eskatzen dena betetzen badute (gainerako taldeari dagokionez, laguntza teknikoan eta kontratuaren xedearen antzeko lanetan 2 urteko esperientzia).

12.2.3. Berdintasun-irizpidea: Gehienez 4 puntu

2 puntu emango dira **lantaldeko kide den emakume bakoitzeko**, gehienez 4 puntura arte.

12.2.4. Kontziliazio-irizpidea: Gehienez 6 puntu

1 puntu emango da bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak aplikatzen zaizkion **lantaldeko kide bakoitzeko**, gehienez 6 puntura arte.

Neurri horiek justifikatzeko, enpresaren eta langileen ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztuko da, edo neurri horiek bermatzen dituen bereizgarri edo aitorten bat lortu izana.

13. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du, eta honako kide hauek osatuko dute batzorde hori:

1. profila: EUSKAL EDITOREA, SLuko IKT arduraduna
2. profila: EUSKAL EDITOREA, SLUren ekoizpen- eta edizio-arduraduna

14. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak aldeaz aurretik kalifikatuko du 1. gutun-azaleko dokumentazioa ("Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa"), garaiz eta behar bezala aurkeztua. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak aurkitzen badira, erakunde kontratatzaileak bost egun naturaleko epea emango dio lizitatzailerari akats horiek zuzentzeko.

Ondoren, 2. gutun-azala irekiko da ("Balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa"), bertan jasotako dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko.

2. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala irekiko da ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa").

Hori egin ondoren, 3. gutun-azaleko dokumentazioa irekiko da ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa"), aztertzeko eta baloratzeko.

Lizitatzaille jakin bat baztertzea erabakiz gero, erakunde kontratatzaileak berariaz jakinaraziko dio baztertutako lizitatzailerari.

15. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio Organoak honako dokumentazio hau aurkezteko eskatuko dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean honako hauek betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa: erakunde kontratatzailearekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza guztiak eta agiri honen 10. klausulan eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-betekizun guztiak, eta kontratatzeke debekurik ez izatea, jarraian adierazten den moduan.

Proposamena aldi baterako elkarte baten kide gisa aurkeztu nahi duten enpresaburuek egin badute, dokumentazio hori elkarte osatu behar duten enpresa guztiei eskatuko zaie.

- (i) Lizitatzaillearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren

nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eraketa-eskritura edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da. Agiri horietan, enpresaburuaren jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira.
- Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarrak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, enpresaburu horiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta egon beharko dute, edo, bestela, zinpeko aitortpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorritz.
- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion estatuan duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kotsuletxeko Bulegoaren txostenaren bidez egiaztatuko da.
- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztuz egiaztatuko da.
- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen denean, edo, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan.

Dokumentazio hori guztia elektronikoki aurkeztuko da.

- (ii) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
2. Hala badagokio, kontratuari atxikitze konprometitutako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- (i) Hala badagokio, kontratua gauzatzeko konprometitutako giza baliabideei dagokienez, haiek kontratuari atxikitze, hautatutako lizitatzailak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
 - a) Kontratuari atxikitako talde osoaren izen bidezko identifikazioa,

eskatutako betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitaeko fitxekin batera:

1. Titulazio akademiko ofiziala.
 2. Esperientzia dagokion eremuan.
 3. Erakunde kontratatzaileak eskatzen duen beste edozein alderdi, hala badagokio.
- b) Giza baliabide horiek guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Ohartarazten da ezen, datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den araudi nazionalean eta Europar Batasunekoan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) horiek biltzeak eta erabiltzeak berekin ekarriko duela lizitatzailerik horrek, tratamenduaren arduradun den aldetik, datu pertsonalak tratatzea; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betez erakunde kontratatzaileari entregatzeak berekin ekarriko duela hark datu pertsonalak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzailerik bete egin beharko ditu aurreko paragrafoan adierazitako datuen tratamenduarekin eta komunikazioarekin lotuta datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den araudi nazionalean eta Europar Batasunekoan xedatutakotik harentzat eratortzen diren betebeharrak. Bereziki, eta tratamenduaren arduradun gisa bete beharreko beste edozein betebeharrak alde batera utzi gabe, hautatutako lizitatzailerik, bere erantzukizunpean bakarrik, datu pertsonalen komunikazio hori gaitzen duen interesdunen baimen informatua lortu beharko du, eta hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

3. Indarrean dagoen erantzukizun zibil profesionaleko aseguruaren ziurtagiria, agiri honen 22. klausulan ezarritako betekizunak betetzen dituen. Polizaren kopia eta azken ordainagiria.
4. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratuta dagoela erakusten duen agiria. Aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari edo ahalduz bakarrik izendatu beharko du, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoarekin, harik eta elkarteak bukatu arte.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzen jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko eskubidea, lizitatzailerik emandako informazioaren egiazkotasuna

egiaztatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzemanaz gero, erakunde kontratatzaileak bost egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Adierazitako epean dokumentazio-eskaerari behar bezala erantzuten ez bazaio, edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak baditu, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela eta dokumentazio bera eskatu diola hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera.

Kontratazio Organoak adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

Kontratazio Organoak erabakiko du nori esleitu, ebazpen arrazoituaren bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie posta elektronikoz.

16. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, eta dokumentu hori lizitazioaren baldintzetara egokituko da zehatz-mehatz. Kontratua formalizatzen den dokumentuan ezingo da sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Kontratuaren formalizazioa EUSKAL EDITOREA, SLUren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

17. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- a) Kontratastak bere baldintzen arabera gauzatuko du kontratua, administrazio-klausula partikularren agiri honetan, preskripzio teknikoen agirian eta kontratastak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, bai eta, hura interpretatuz, erakunde kontratatzaileak kontratastari ematen dizkion jarraibideen arabera ere.
- b) Kontratua hainbat xedapen betetzearen mende dago, hala nola indarrean diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak eta lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak direnak.

Kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide-

kategoriaren arabera aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko da, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere hura baino txikiagoa izango.

- c) Kontratataren gain eta galorde gauzatuko da kontratua.
- d) Erakunde kontratatzaileak edozein unetan eta edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu eta ikuskatu ahal izango du kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua behar bezala gauzatzen dela.
- e) Langile guztiak kontratataren mende egongo dira soil-soilik, eta kontratistak enpresaburu izateari dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu, eta ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin erakunde kontratatzaileari, lan-harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz.

Kontratista izango da kontratua gauzatzen lan egiten duten langileekin (izan berezko langileak, izan azpikontratatuak) zerikusia duen edozein ezbeharren edo erreklamazioren (judiziala edo judizioz kanpoko) erantzule bakarra, eta erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen duen inolako lan-erantzukizunik (laneko segurtasunari, higienezari eta osasunari dagokiona barne), edo Gizarte Segurantzarekin edo zergekin lotutakorik. Era berean, kontratistak bere gain hartuko ditu bakar-bakarrik kontratua gauzatzeak eragindako ezbeharretatik erator daitezkeen erantzukizunak.

- f) Kontratistak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
 - ✓ Administrazio-klausula partikularren agiriko 20. klausulan adierazitakoak.
 - ✓ Izaera sozialeko baldintzak:
 - Kontratistak nahitaez bete beharko du berak bere eskaintzan kontratu honen xedeari dagozkion zereginak egiten dituzten langileentzat adierazitako hitzarmen kolektiboa.
 - Enpresa kontratistak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzearen harira sortzen den dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan, eta saihestu egin beharko du emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista, eta berdintasunezko, presentzia orekatuko, aniztasuneko, erantzukidetasuneko eta genero-rol eta -identitateen pluraltasuneko balioak biltzen dituen irudi bat sustatu beharko du.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek eskatu ahal izango zaizkie, halaber, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei, eta kontratistari dagokio azpikontratista horiek adierazitakoa bete dezaten ezarri eta bermatzeko mekanismoak artikulatzea.

18. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Kontratu-betebeharrak izango dira:

- a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan, agiri honetan eta preskizio teknikoan agirian ezarritakoa zorrotz betez.
- b) Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean diren eta aplikatzekoak diren legezko xedapenak, erregelamenduzkoak eta konbentzionalak betetzea, agiri honen 20. klausularen b) atalean jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratua gauzatzen den bitartean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere hura baino txikiagoa izango.
- c) Kontratuaren gauzatzeari atxikitzea kontratistaren eskaintzan konprometitutako giza baliabideak (berezkoak edo azpikontratutako enpresa batekoak) eta/edo baliabide materialak.
- d) Bere jarduera gauatzeko beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak bere kontura lortzea.
- e) Zerbitzuak ematea unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudi sektorialean xedatutakoaren arabera. Horretarako, bai kontratistak, bai kontratistaren langileek, unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak izan beharko dituzte.
- f) Kontratua gauzatzen den bitartean, gutxienez, agiri honen 22. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguru propioak kontratatzea edo haiei eustea.
- g) Kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea.
- h) Langileak ordezkatzeta, baldin eta beren eginkizuna behar bezalako arretaz eta eraginkortasunez betetzen ez badute, gaituta ez badaude, zerbitzuak betetzean kontu gutxi badute edo kontratuaren martxa onerako ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Hori guztia gehienez ere hogeita lau ordutan, erakunde kontratatzaileak horretarako errekerimendua egiten duenetik zenbatzen hasita. Langileak ordezteak ez dio inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratatzaileari kontratistak eraginpeko langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langile horiek, jarduera hasi aurretik, dagokion baimena dutela egiaztatu beharko dute.

- i) Langileak ordeztegaixotasunagatiko, oporreatiko, baimenengatiko, lizentziengatiko, istripuengatiko eta abarreatiko bajek eragindako lan-absentziak betetzeko, kontratatutako zerbitzuak benetan eta etengabe ematen direla bermatuz.
- j) Datu pertsonalen babesaren arloan bete beharreko betebeharrak guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea, agiri honetan eta/edo datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudi nazionalan eta Europar Batasunekoan aurreikusitakoaren arabera.

19. DATU PERTSONALAK BABESTEAK

Kontratatistak bete egin beharko ditu, datuen tratamenduaren arduradun den aldetik, kontratuaren indarraldian eta dagozkion jardueren esparruan bere kabuz eta berak erabakita egiten dituen datu pertsonalen tratamenduak direla-eta aplikagarri diren datu pertsonalak babesteko honako arau hauetan aurreikusitakoak: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan —datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeri dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa—, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Europar Batasunari buruzko beste edozein araudi nazional eta Europar Batasunekoan ezarritakoa.

20. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruzko xedapenetan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, erakunde kontratatzaileak ezingo du zabaldu lizitatzailerek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa. Konfidentzialtasunak, besteak beste, honako hauei eragiten die: sekretu teknikoei edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lizitazio-prozedura honetan edo ondorengoetan lehia faltzutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori.

Kontratatistak errespetatu egin beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo bere izaeragatik halakotzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horri 5 urtez eutsiko zaio kontratua amaitu ondoren.

21. ERANTZUKIZUNA

Kontratatistaren ardura izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzean egiten diren omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek erakunde kontratatzaileari edo

hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioak ere.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea.

22. ASEGURUAK

Kontratistak erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat kontratatu edo eduki beharko du, gutxienez 600.000 euroko zenbatekoari dagokiona (erabat bere gain eta galorde kontratua, kontratuaren indarraldi osorako, kontratuaren indarraldian gertatutako gorabeheretarako edo ondorengo hamabi hilabeteetan erreklamaturako gertaeretarako).

23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratista behartuta egongo da ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste edozein motatako ekipo eta/edo baliabide osagarri erabiltzeko eta/edo ustiatzeko lizentziak eta eskubideak, baimendutako iturrietatik eta bere kontura bakarrik lortzera, baldin eta, agiri honetan eta preskripzio teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera, haren xede diren zerbitzuak esleitu, aurkeztu eta/edo gauzatzeko jarraitu behar badu.

Kontratistak ziurtatu beharko dio erakunde kontratatzaileari modu baketsuan erabiliko duela kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitza, eta, hala badagokio, kontratuaren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legitimoki eta baimendutako iturrietatik lortzera behartuko du bere burua, eta entregatzeko unean adieraziko du emaitza horren gainean ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideen aurka egiten duen inolako konpromisorik edo kargarik.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek jabetza intelektualari eta/edo industrialari buruz egin dezaketen edozein erreklamazioaren erantzulea, honako hauei dagokienez:

- Zerbitzuak emateko, jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideen bidez babestuta dauden materialak, tresnak eta gainerako bitartekoak erabiltzea.
- Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrekoa kontuan hartuta, kontratistak kalte-ordaina eman beharko dio erakunde kontratatzaileari kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik erakunde kontratatzailearentzat erator daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

Aipatutako guztitik eratortzen den ordainsaria, hala badagokio, kontratuaren

prezioan sartuta dagoela ulertuko da.

24. ZIGORRAK

Epeetan (osoak edo partzialak) atzeratzeagatiko zigorrak, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, 1,5 eurokoak izango dira kontratuaren 1.000 euroko, atzerapen-egun bakoitzeko.

Zigor bera aplikatuko da kontratua gauzatzeko funtsezko edozein betebeharrak edo baldintza oker betetzen bada edo betetzen ez bada, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakiz gero. Kasu horretan, dagokion zuzenketa egiteko, betetzeko edo egoki gauzatzeko benetan behar den egun-kopuruaren gainean aplikatuko da zigorra.

Horrez gain, kontratua gauzatzen den bitartean bertan parte hartzen ari diren langileei soldatak ordaintzen ez bazaizkie, atzerapenak gertatzen badira edo hitzarmen kolektibotik eratorritakoak baino soldata txikiagoak ordaintzen badira, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, aplikatu beharreko zigorra ordaindu gabeko edo atzeratutako soldaten bikoitza izango da, langileei behar bezala ordaintzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

Aurrez adierazitako zigor horiek guztiak metatu egingo zaizkie bere kasuan dagozkien kalte-galeren kalte-ordainei.

25. AZPIKONTRATATZEA

Erakunde kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, honako jarraibide hauen arabera:

Kontratista nagusiak idatziz eman beharko dio Kontratazio Organoari informazio horrek kontratu nagusia gauzatzen den bitartean jasaten duen edozein aldaketaren berri, baita azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztiaren berri ere.

Azpikontratatzaileak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratatzailearen gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati erantzuteko, eta hori behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratatzaileak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta, beraz, kontratistak bere gain hartuko du kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa erakunde kontratatzailearen aurrean, baldintza-agiriei eta kontratuaren baldintzei zorroztz jarraituz, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak betetzea barne.

26. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahalko du honako kasu hauetan:

- Aldaketak ezinbesteko egiten dituzten arrazoi objektiboei erantzuteko beharrezkoak direnak.
- Kontratistaren aldaketak, arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik ezinezkoak, kontratazio-organoa hasieran kontratatutakoez bestelako ezaugarriak dituzten obrak, zerbitzuak edo hornidurak erostera behartzen dutenak.

Aldaketak haiek justifikatzen dituen kausa betetzeko behar-beharrezkoak direnetara mugatu behar dira.

Kontratuaren aldaketek ezin izango dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk ezartzea.

27. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua betetzen denean edo jarraian araututakoaren arabera erabakitako ebazpenaren ondorioz azkenduko da.

Hauek izango dira kontratua azkentzeko arrazoiak, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero:

- a) Konkurtsoa deklaratzeko edo kaudimengabezia deklaratzeko beste edozein prozeduratan.
- b) Kontratista epeak betetzen atzeratzea.
- c) Kontratuaren betebeharrak ez betetzea.
- d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betiere halakotzat izendatu badira.
- e) Prestazioa hasieran itundutako baldintzetan gauatzeko ezintasuna, kontratua agiri honetan aurreikusitakoaren arabera aldatu ezin denean.
- f) Kontratua gauzatzen ari den bitartean, kontratistak bertan parte hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua gauzatzen ari den bitartean ere.
- g) Oro har, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik eta legez bidezkoak izan daitezkeen

beste edozeinengatik kontratua suntsitzetik erator daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua benetan suntsiarazi ondoren likidatuko dira, eta ez da eragozpena izango erakunde kontratatzaileak kontratua gauzatzen jarraitu ahal izateko.

Kontratua suntsiarazten bada, kontratistak, printzipioz, benetan egindako prestazio onartu guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.

Azkenik, kontratua erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jarrita suntsiarazi ahalko da; kasu horretan, alderdien eskubideak alderdiek baliozkotasunez hitzartutakora egokituko dira.

28. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak izaera pribatua du, eta administrazio-klausula partikularren agiri honek eta preskripzio teknikoen agiriak arautzen dute.

Nolanahi ere, kontratua datu pertsonalak babesteari buruzko araudi nazionalaren eta Europar Batasunaren araudiaren mende egongo da.

29. JURISDIKZIOA

Jurisdikzio-ordena zibilak izango du alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena.

Kontratuarekin lotutako auziren bat izanez gero, alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

I. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua.

[...] jaunak/andreak ([...] helbidea eta [...] NAN-zk.), bere izenean edo [...] ordezkatzuz ([...] helbidea eta [...] NAN-zk. edo IFKa), gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren berri jakin ondoren,

ADIERAZTEN DU

Lehena.- Eskaintza hau aurkezten den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

Bigarrena.- Berariaz onartzen duela erakunde kontratatzaileak gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta gauzatze-prozesutik eratorritako datu guztiei (esleipendun izanez gero), prozesua amaitu arte.

Hirugarrena.- Prozeduraren edozein faserekin lotutako jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela: [...]

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Notarioaren adierazpenen aktaren eredua, baldin eta lizitatzailerak eskatzen den kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu.

*[OHARRA: Lizitatzailerak eskaintzarik onena aurkeztu badu bakarrik aurkeztu behar da, eta lizitatzailerak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, baldin eta beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu. **Hirugarren erakundeak osatu behar du**]*

[...] jaunak/andreak ([...] NAN-zk.), [...] ([...] IFKa) enpresaren legezko ordezkari den aldetik, adierazten du bere irismen osoan ezagutzen dituela [...] lizitatzailerak (enpresa lizitatzaileraren izena) lehiatzen den EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta esleipendun izanez gero kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak lizitatzaileraren esku jartzeko borondate ezeztatzina adierazten du, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta; [...] (e)k berariaz baimendu beharko du hura ordezteko edo aldatzea.

Idazki hau [...] (r)en aurrean aurkezteko konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu, lizitatzailerak esleipendun suertatzen bada.

[...] (e)n, [...] (e)ko [...] (a)ren [...] (e) (a)n.

[Sinadura]

III. eranskina. Azken 3 ekitaldietako negozio-bolumenaren erantzukizunpeko adierazpena

[...] jaunak/andreak ([...] helbidea eta [...] NAN-zk.), bere izenean edo [...] ordezkatzuz ([...] helbidea eta [...] NAN-zk. edo IFKa), gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren berri jakin ondoren,

ADIERAZTEN DU

[...] enpresak kontratuaren xede diren jardueren esparruan itxitako azken 3 ekitaldietan egindako negozioen zifra honako hau dela:

- 2024ko ekitaldia: ... €
- 2023ko ekitaldia: ... €
- 2022ko ekitaldia: ... €

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

IV. eranskina Azken 3 ekitaldietan egindako lanen aitortpena

[...] jaunak/andreak ([...] helbidea eta [...] NAN-zk.), bere izenean edo [...] ordezkatzuz ([...] helbidea eta [...] NAN-zk. edo IFKa), gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren berri jakin ondoren,

ADIERAZTEN DU

Azken 3 ekitaldietan enpresak lizitazioaren xedearen antzeko lan hauek egin dituela:

Laguntza teknikoko kontratuar en izena	Programa	Bezeroa	Kontratuar en zenbatekoa (BEZik gabe)	Kontratuar en data	Gauzatze ko aldia

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

V. eranskina. Giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa.

[...] jaunak/andreak ([...] helbidea eta [...] NAN-zk.), bere izenean edo [...] ordezkatzuz ([...] helbidea eta [...] NAN-zk. edo IFKa), gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren berri jakin ondoren,

ADIERAZTEN DU:

Konpromisoa hartzen duela, kontratuaren esleipendun izanez gero, kontratua gauzatzeko hura arautzen duen pleguko 10.2 puntuan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxikitzeko.

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

VI. eranskina Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[...] jaunak/andreak ([...] helbidea eta [...] NAN-zk.), bere izenean edo [...] ordezkatzuz ([...] helbidea eta [...] NAN-zk. edo IFKa), gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren berri jakin ondoren,

ADIERAZTEN DU

1. Konpromisoa hartzen duela EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren kontratua gauzatzeko, honako baldintza hauen arabera:
 - Eskainitako prezioa:€ (BEZik gabe)
 - Gutxieneko langileen esperientzia:
 - o Taldearen arduraduna:
 - [...] urteko esperientzia.
 - o Gainerako taldekideak:
 - 1. pertsona:
 - [...] urteko esperientzia.
 - 2. pertsona:
 - [...] urteko esperientzia.

- Kontratua gauzatzeari atxikitako langile gehigarriak: [...] pertsona

** (eranskin bat erantsi behar da, eta bertan egiaztatu behar da txostenaren 10.2 puntuan eskatzen dena betetzen dutela, gainerako taldeari dagokionez, laguntza teknikoan eta kontratuaren xedearen antzeko lanetan izandako 2 urteko esperientziari buruz.*

- Berdintasuna:

- Kontratua gauzatzeari atxikitako emakumeen kopurua: [...] emakume
- Kontziliazio-neurriak aplikatzen zaizkien taldeko pertsonen kopurua: [...] pertsona

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz bere gain hartzen eta onartzen duela oso-osorik.

[...](e)n, [...](e)ko [...]aren [...](e)(a)n.

[Sinadura]

VII. eranskina. - ABEE eratzeko konpromisoaren eredua

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean edo
[...] gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna...),
[...] enpresa ordezkatzuz (helbidea: [...]; IFKa: [...])

Eta

[...] jaunak/andreak, [...] helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, bere izenean edo
[...] gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna...),
[...] enpresa ordezkatzuz (helbidea: [...]; IFKa: [...])

ADIERAZTEN DU

Beren gain hartzen dutela Aldi Baterako Enpresa Elkarte formalki eratzeko konpromisoa EFA 156/04 SAREBIDE proiektuaren Kudeaketa eta Koordinazio Administratiborako Laguntza Teknikoko Zerbitzua kontratatzeko, %-(e)ko eta %-(e)ko partaidetza izango dutela, hurrenez hurren, eta honako hau izendatzen dutela elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar gisa, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoarekin, harik eta kontratua iraungi arte: [...]

[...](e)n, [...](e)ko [...](a)ren [...](e)(a)n.

Sin.:

Sin.:

1. enpresa

2. enpresa